

## ARRAZOEN AZALPENA

Pasaia Udalak garraio sistema berriak sustatu nahi ditu, egungo ereduak herriaren bizi-kalitatean duten eragin kaltegarria delata; horregatik, ohiko garraiobideak ahal den heinean ordezkatu, eta bizikletaren erabilera sustatu nahi du, bizikletak dituen abantaila ugariak kontuan izanik: trafikoa hobetzen du, eguneroko desplazamendu beharrak eraginkortasunez betetzen ditu, eta kutsadura eta zarata mailak gutxitzen laguntzen du.

Gure udalerrian ibiltzeko bitarteko berrien eskariari erantzunez, udal proiektu honen bitartez, bizikletak mailegatzeko guneak ezarriko dira udalerrian barrena. Baina zerbitzu berri hau ez da udalaren zerbitzu soil bat izango, mugikortasun iraunkorra garatzeko modu eraginkorra baizik.

Mailegu-sistemaren helburua da herritarrak konturatzea bizikletaren erabilera euren eguneroko desplazamenduetarako oso eraginkorra dela (azkarragoa da eta osasun fisikoa eta buruko osasuna hobetzen ditu, besteak beste). Eta azken helburua da erabiltzaileek euren bizikleta erostea eta euren desplazamenduetarako bizikleta erabiltzea.

Gure udalerrian horri buruzko araudirik ez dagoenez, zerbitzu horien erabilera, antolaketa eta funtzionamendua arautzeko ordenantza prestatu eta onartu beharra dago.

Udal honi polizia eginkizuna edo ahalmena aitortzen zaio lege eta arau hauetan: Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4. artikulua; 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, 2.5. artikulua; ekainaren 17ko Dekretua, Tokiko Korporazioen Zerbitzuen Araudia onartzen duena. Ahalmen horiek erabiliz, Ordenantza honen bitartez, bizikleta mailegu zerbitzua erabiltzeko prozedurak ezarri nahi dira, eta horien gaineko

## EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Con el fin de fomentar nuevos sistemas de transporte, e intentando desplazar los modelos actuales, por su impacto para la calidad de vida en la ciudad, el Ayuntamiento de Pasaia pretende impulsar la bicicleta como sistema alternativo positivo, promoviendo el uso de la misma, debido a las ventajas que este vehículo tiene en la mejora del tráfico, como medio de transporte que cubre con eficacia las necesidades diarias de desplazamiento y que contribuye a la reducción de los índices de contaminación y de ruido.

La presente demanda de nuevos medios para la movilidad en nuestro municipio nos lleva a plantear el presente proyecto municipal, ahora realidad, de instalación de puntos de préstamo de bicicletas al público, no como un servicio más del Ayuntamiento, sino como una alternativa real para el desarrollo efectivo de una movilidad sostenible.

El sistema de préstamo, tiene como objetivo que los ciudadanos comprueben la efectividad que en sus desplazamientos tiene el uso de la bicicleta, así como las bondades derivadas del uso continuado de la misma (reducción en los tiempos de desplazamiento y mejora de la salud física y mental, entre otros), siendo el fin último perseguido que los usuarios adquieran su propia bicicleta y la empleen de forma habitual para sus desplazamientos.

La total ausencia de una regulación en este sentido en nuestro municipio conlleva la necesidad de la elaboración y aprobación de una Ordenanza que regule el acceso a dichos servicios, así como su organización y funcionamiento.

La presente Ordenanza, fruto de la potestad reglamentaria y de autoorganización reconocida a las Entidades Locales en el artículo 4º de la Ley 7/1.985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, en el artículo 2.5 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, así como en el Decreto de 17 de junio de 1.955, por el que se aprueba el Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales, pretende establecer los procedimientos para el

kontrola ezarri.

## 1. Kapituluak Xedapen orokorrak

### 1. artikulua.- Zerbitzuaren xedea.

Zerbitzu honen xedea hau da: bizikleta mailegu sistema bat ezartzea Pasaia herriarrentzat eta bisitarientzat, herri barruko desplazamenduetarako, ibilgailu horren erabilera sustatze aldera.

### 2. artikulua. Zerbitzuaren eremua.

Zerbitzuak eremu hauek hartzen ditu barne: Pasaia udalerrria, Donostia eta Oarsoaldeko udalerrri guztiak. Hau da, eremu horietatik guztietatik ibil daiteke bizikletarekin.

### 3. artikulua. Zerbitzuaren atxikitze organiko eta funtzionala.

Udal zerbitzu hau Mugikortasun eta Kirol zinegotzigoetara atxiki da organikoki eta funtzionalki.

## II. Kapituluak. Antolakuntza eta funtzionamendua.

### 4. artikulua. Bizikleta mailegatzeko sistemaren ezaugarriak.

Udalerriko leku ezberdinetan bizikletak uzteko hainbat aparkaleku eta mailegatzeko 4 gune ezarri dira. Mailegu-gune guztiek dituzte ainguraketa eremua, bizikletak eusteko elementuekin, aurrez aurreko arreta gunea, eta mailegatzeko bizikletak.

Sistemaren osagai guztiak, bizikletak barne, udal ondasun publikoak dira; eta horiei araubide hau dagokie: Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen IX. Tituluan arau-hauste eta zigorrekin buruz ezarritako araubidea.

### 5. artikulua. Bizikletak aparkatzeko eta mailegatzeko guneen kokalekuak.

acceso y utilización de dicho servicio de préstamo de bicicletas, así como determinar el control sobre los mismos.

## Capítulo I. Disposiciones Generales

### Artículo 1. Objeto del servicio.

El objeto del servicio es la puesta a disposición de los ciudadanos y de las personas que visiten Pasaia de un sistema de préstamo de bicicletas para desplazamientos urbanos, con el fin de fomentar el uso de este vehículo.

### Artículo 2. Ámbito del servicio.

El ámbito del servicio queda abierto a todo el municipio de Pasaia así como a Donostia y todos los municipios de Oarsoaldea, es decir, se podrá circular con la bicicleta por todos ellos.

### Artículo 3. Adscripción orgánica y funcional del servicio.

El servicio municipal queda adscrito orgánica y funcionalmente a las Concejalías de Movilidad y de Deportes del Ayuntamiento de Pasaia.

## Capítulo II. Organización y Funcionamiento

### Artículo 4. Características del sistema de préstamo de bicicletas.

El sistema comprende los aparcamientos y 4 puntos de préstamo presencial de bicicletas instalados en diversos puntos del municipio. Cada zona de préstamo se compone de una zona de anclaje con los elementos de soporte, y unidad de control presencial, así como de las bicicletas de préstamo.

Todos los componentes del sistema, incluidas las bicicletas, tienen la consideración de bienes públicos municipales, siendo de aplicación el régimen establecido para las infracciones y sanciones en el Título XI de la Ley 7/1.985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

### Artículo 5. Emplazamientos de los aparcamientos y los puntos de préstamo de

Bizikletak mailegatzeko zerbitzua gune hauetan erabili ahal izango da:

- Donibaneko kirolgunea: aste barruan 9:00etatik 21:00etara, larunbatetan 9:00etatik 19:00etara, eta igandeetan 9:00etatik 13:00etara.
- Trintxerpeko kirolgunea: aste barruan 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 21:00etara, larunbatetan 9:00etatik 13:00etara, eta igandeetan 9:00etatik 13:00etara.
- Antxoko frontoia: egunero arratsaldez eta irekiera-ordutegiaren arabera.
- Kirol Sailaren Trintxerpeko egoitza: Euskadi etorbidea, 61: aste barruan 8:00etatik 14:30era.

Udalak mailegu-guneen kokalekuak aldatu, edo gune gehiago jar ditzake. Ekintza bandalikoak saihesteko eta bizikleten mailegu-guneak eta oro har zerbitzuaren instalazio guztiak babesteko, bideo-zaintzako kamerak erabili ahal izango dira.

#### 6. artikulua. Zerbitzuaren erabiltzaileak.

Bizikletak mailegatzeko udal zerbitzuaren erabiltzaile izan daitezke zerbitzuan alta ematen duten adindunak. 16 urtetik gorakoek ere eman dezakete alta zerbitzuan, haien legezko tutorearen baimenarekin (eta tutorea behar bezala identifikatu beharko da). Ezin dira zerbitzuaren erabiltzaile izan mailegatzaren diren bizikletak erabiltzeko ezinduak daudenak. Betiere erabiltzaileek bizikletak erabiltzeko gaitasun psikiko eta fisikoa izan behar dute, ordenantza honekin eta aplikatu beharreko zirkulazio-araudiarekin bat.

#### 7. artikulua.- Zerbitzuan alta ematea.

Bizikleten mailegurako udal zerbitzua erabili nahi dutenek, aurretik alta eman behar dute zerbitzuan, horretarako egokitutako bulegoetan: mailegu-guneetan edo Herritarren Arreta Zerbitzuko bulegoetan (aurrerantzean

#### bicicletas.

El servicio de préstamo de bicicletas se podrá utilizar en los siguientes puntos:

- Centro deportivo de Donibane: entre semana 9:00-21:00, sábados 9:00-19:00, domingos 9:00-13:00.
- Complejo Deportivo de Trintxerpe: durante la semana 9:00-13:00 y 16:00-21:00, sábados 9:00-13:00, domingos 9:00-13:00.
- Frontón de Antxo: todos los días por la tarde y en función del horario de apertura.
- Departamento de Deportes en Trintxerpe, euskadi etorbidea 61: durante la semana 8:00-14:30h.

El Ayuntamiento podrá modificar la ubicación de los puntos de préstamo o ampliar con otros puntos del servicio. Para evitar posibles actos vandálicos y para la protección de los puntos de préstamo, de las bicicletas, y en general de toda la instalación que engloba el servicio, se podrán utilizarán cámaras de video vigilancia.

#### Artículo 6. Usuarios del servicio.

Podrán ser usuarios del servicio municipal de préstamo de bicicletas los mayores de edad que se den de alta en el servicio. También podrán serlo los mayores de 16 años que se den de alta en el servicio, con la autorización del tutor legal debidamente identificado. No podrán ser usuarios quienes estén impedidos para el uso de las bicicletas objeto del préstamo. Los usuarios deberán, en todo caso, tener la capacidad psíquica y física para utilizar las bicicletas conforme a la presente ordenanza y a la normativa sobre circulación vial aplicable.

#### Artículo 7. Alta en el servicio.

Las personas que deseen utilizar el servicio municipal de préstamo de bicicletas deberán previamente darse de alta en dicho servicio en las oficinas habilitadas para ello: puntos de préstamo o oficinas del Servicio de Atención al

HAZ). Lehenengo aldian erabilera-araudia onartu eta sinatuko dute. Ordutik aurrera erabiltzailea erregistratuta geratuko da, eta hurrengo maileguetarako nahikoa izango da bere burua identifikatzea.

Hala ere, Udalak alta emateko beste gune batzuk ere egokitu ditzake.

Zerbitzua erabiltzeko nahitaezkoa da harremanetarako telefono mugikorra izatea.

Erabiltzailea adinduna bada, formulario bat bete beharko du (I. eranskina), eta NA, pasaporte edo NIEren fotokopia erantsi. Erabiltzailea adingabea bada, II. eranskineko formularioa erabiliko da. Adingabearen guraso batek edo legezko tutoreak beteko du formularioa eta haren NA, pasaporte edo NIEren fotokopiarekin batera aurkeztu.

Pasaia Udalak erabiltzaile edo titularrei bankuko txartelaren zenbakia eska diezaike.

Modalitate hauek izango dira:

A. Pasaia kirolguneetako bazkideentzako doakoa izango da mailegu-zerbitzua, afiliazio-modalitate hori iraungi arte.

B. Pasaian erroldatuta\* dauden eta kirolguneetako bazkide ez diren herritarrek urteko txartela eskuratu beharko dute 10 euroren truke, eta baita banakako txartela ere.

C. Pasaian erroldatuta ez daudenek erabilera bakoitzeko ordainduko dute, tarifa hauen arabera:

Alokairuak /alquiler	Banakakoa / individual
1,5 ordu / horas	5,00
3 ordu / horas	8,00
Goiza edo arratsaldea / Mañana o tarde	12,00
Eguna / Día	18,00

\*Pasaian erroldatutakotzat hartuko dira Pasaia kaleren batean erroldatuta daudenak edo egun Donostiaren jurisdikziopean dauden kale hauetan erroldatutakoak: Eskalantegi, Lorete, Darieta, Berra, Buenavista ibilbidea eta

Público (en adelante, SAC). La primera vez suscribirán y aceptarán la normativa de uso. A partir de entonces la persona usuaria quedará registrada y para los próximos alquileres solamente tendrá que identificarse.

No obstante, el Ayuntamiento podrá habilitar otros puntos de alta.

Para poder hacer uso del servicio es necesario disponer de un teléfono móvil de contacto.

Si el usuario es mayor de edad tendrá que rellenar un formulario, recogido como Anexo I, y acompañarlo de fotocopia del DNI, pasaporte o NIE. Si el usuario es menor de edad se utilizará el formulario recogido como Anexo II, que deberá cumplimentarse por el padre, madre o tutor legal y acompañarse de fotocopia de DNI, pasaporte o NIE del mismo.

El Ayuntamiento de Pasaia podrá pedir a los usuarios/titulares un número de tarjeta bancaria.

Se recogen las siguientes modalidades:

A. Socios/as de los complejos deportivos de Pasaia> gratuito, hasta que caduque dicha modalidad de afiliación.

B. Vecinos/as empadronados/as en Pasaia\*, que no sean socios/as de los complejos deportivos. Deben obtener la tarjeta anual. tasa de 10 euros + tarjeta individual.

C. Personas no empadronadas en Pasaia. Pago por cada uso, según las siguientes tarifas:

\*Consideración de personas pasaitarras empadronadas: Personas físicas que estén empadronadas en cualquiera de las calles de Pasaia o en las calles actualmente bajo jurisdicción de Donostia: Eskalantegi, Lorete,

Molinao.

Pasaiakoak ez direnek eta zerbitzua noizean behin erabiltzen dutenek NA erakutsi behar diete alokairu-guneetako langileei, eta haien kreditu-txartelaren datuak emango dituzte, berme gisa. Dagokion inprimakia bete eta tasa ordaindu ondoren, zerbitzua erabili ahal izango dute.

Datu guztiak eta ordainagiria egiaztatu ondoren, eskatzaileari agiri bat emango zaio, erabiltzailea dela egiaztatzen duena.

Tartela, egiaztagiria:

-A modalitateko erabiltzaileek (kirolguneetako bazkideek) euren banakako txartela erabiliko dute.

-B modalitateko erabiltzaileek (bazkide ez diren pasaitarrek) urteko txartela eskuratuko dute, dagokien tasa ordainduta. Txartel hori besterenezina izango da eta alokairuak, isunak eta abar identifikatzeko balioko du. Nahitaezkoa da txartela ondo erabiltzea eta behar bezala mantentzea, bizikleta alokairu-gunetik hartu nahi bada.

-C modalitateko erabiltzaileek (pasaitarrak ez direnek) ez dute txartelik izango.

Udalak udal langileekin eta turismo arloan eskumena duten erakundeekin akordioak egin ditzake, bertakoak ez direnek zerbitzua erabil dezaten; eta akordio horietan zerbitzua erabiltzeko baldintzak ezarriko dira.

#### 8. artikulua. Zerbitzuan baja ematea.

Bizikleta mailegatzeko sisteman borondatezko baja eman daiteke. Horretarako, idatzi bat aurkeztuko da sisteman alta emateko bulegoetan, eta idatziarekin batera txartela entregatuko da. Baina Udalak ez du itzuliko zerbitzuan alta ematean ordaindutako diru-kopurua.

#### 9. artikulua. Bizikleta mailegatzeko udal zerbitzuaren ezaugarriak.

Darieta, Berra, Avda de Buenavista y Molinao.

Las personas no pasaitarras y aquellas que utilicen el servicio puntualmente deberán mostrar el DNI al personal de los puntos de alquiler, así como facilitar los datos de una tarjeta de crédito, a modo de garantía. Una vez de cumplimentar el impreso correspondiente y abonar la tasa podrán utilizar el servicio.

Comprobados los datos y el justificante de pago, se entregará al solicitante un documento que le acredita como usuario.

Tarjeta/acreditación:

-Las personas usuarias de la modalidad A, socios/as de los complejos deportivos, utilizarán su tarjeta individual.

-Por su parte, las personas usuarias de la modalidad B, no socios/as y pasaitarras, deberán obtener una tarjeta anual, abonando la tasa correspondiente. Esa tarjeta será intransferible y servirá para identificar sus los alquileres, sanciones etc. Es obligatorio el uso y mantenimiento adecuado de la tarjeta, si se quiere retirar la bicicleta del punto de alquiler.

-Las personas usuarias de la modalidad C, no pasaitarras, no tendrán tarjeta personalizada.

El Ayuntamiento podrá establecer acuerdos con sus propios trabajadores y con los organismos e instituciones competentes en materia de turismo para facilitar el uso del servicio por personas no residentes, estableciendo las condiciones para acceder al mismo.

#### Artículo 8. Baja en el servicio.

Se podrá cursar baja voluntaria del sistema de préstamo de bicicletas. Para ello será necesario presentar un escrito solicitando la baja en las oficinas de alta en el sistema, junto con la entrega de la tarjeta identificativa. No obstante, no se devolverá el importe pagado en concepto de alta en el servicio.

#### Artículo 9. Funcionamiento del servicio municipal de préstamo de bicicletas.



1. Zerbitzuan izena emateko eta bizikletak erabiltzeko, lehenik eta behin, erabiltzaileak alta eman behar du, eta sistema erabiltzeko baldintzak onartu eta sinatu.

2. Udalerrian dagoen alokairu-gune batera joan, eta hango langileei jakinaraziko die alokairu-zerbitzuko bizikleta bat hartu nahi duela. Zerbitzua ez da automatikoa, ezta autonomoa ere; aurrez aurreko arreta eskatzen du, eta mailegu-guneetako ordutegiek baldintzatzen dute.

3. Lehenengoz erabiltzen denetik aurrera, erabiltzaileak bere burua identifikatu beharko du, NA, Pasaia kirolguneetako abonatu-txartela edo BIZIbadia sistemaren txartela erakutsiz.

4. Bizikletaren giltza eskuratuko da, eta adieraziko da zer ibilbide egingo den.

5. Erabiltzaileak bizikleta aukeratuko du, eta giltzarrapoa askatu eta bizikletari lotuko dio.

6. Erabiltzaileak bizikleta hartzen duenean, ziurtatu behar du baldintza egokietan dagoela. Hala ez bada, harrerako langileei jakinaraziko die. Beste bizikleta bat eskainiko zaio, irregulartasunen bat antzematen bada.

Udalerri barruko zein kanpoko desplazamenduetan bizikleten aparkalekuetan utzi behar da beti bizikleta, eta alokairu-guneak oso seguruak dira horretarako.

7. Bizikleta edozein alokairu-gunetan itzul daiteke, dagokion lekuan utzita. Erabiltzaileek giltzarrapoa jarriko diote bizikletari eta behar bezala lotuko dute bizikletak aparkatzeko lekuan. Azkenik, giltza itzuliko diete harrerako langileei.

Zalantzaren bat izanez gero, edo istripuren bat gertatuz gero, erabiltzaileek alokairu-gunetara edo Udaltzaingora joko dute.

#### 10. artikulua. Erabiltzeko baldintzak.

1. Erabiltzaileak bizikletak mailegatzeko

1. Para inscribirse en el servicio y poder hacer uso de las bicicletas, en primer lugar, cada usuario/a debe darse de alta y aceptar y firmar las condiciones de uso del sistema.

2. Se debe acudir a cualquier punto de alquiler del municipio, y comunicar al personal de recepción que se quiere retirar una bicicleta del servicio de alquiler. El servicio no es ni automático ni autónomo; requiere una atención presencial y siempre está condicionado por el horario de cada punto de préstamo.

3. A partir del primer uso, la persona usuaria se deberá identificar con su DNI, la tarjeta de abonado/a de los complejos deportivos de Pasaia o con la tarjeta propia del del sistema BIZIbadia.

4. Se obtendrá la llave de la bicicleta y se informará del recorrido que se vaya a realizar.

5. El usuario deberá escoger la bicicleta, soltar el candado y atarlo a la bicicleta.

6. Cuando se retire la bicicleta esta deberá ser revisada por el usuario/a y se deberá asegurar de que está en perfectas condiciones. En caso contrario, deberá informar al personal de recepción. Se ofrecerá una nueva bicicleta en caso de detectar alguna anomalía.

En los desplazamientos tanto dentro del municipio como fuera se deberá dejar siempre la bicicleta en los aparcamientos para bicicletas señalizados, constituyendo los puntos de alquiler lugares seguros para tal fin.

7. Para devolver la bicicleta, se deberá acudir a cualquier punto de alquiler y aparcar la bicicleta en el lugar correspondiente. Las personas usuarias colocarán el candado a la bicicleta y la anclarán correctamente en aparca bicis. Finalmente deberá devolver la llave al personal de recepción de cada lugar.

En caso de duda o accidente, los usuarios podrán ponerse en contacto con los puntos de alquiler o con la policía municipal.

#### Artículo 10. Condiciones de utilización.

1. El usuario/a podrá hacer uso del servicio de

zerbitzua erabili ahal izango du, eskumena duen organoak ezarritako ordutegian.

2. Eskumena duen organoak erabakiko du zenbat denboraz erabil daitekeen bizikleta; bien bitartean, egun osoan erabili ahal izango da bizikleta, ordutegi mugarik gabe. Eguna bukatu aurretik erabiltzaileak sistemako aparkalekuren batean utzi beharko du bizikleta. Kontrolerako sisteman jasotako datuak (zer ordutan hartu eta itzuli den bizikleta) zerbitzuaren erabilera-denboraren froga izango dira ondorio guztietarako.

3. Bizikletak Pasaiaiko udalerrian, Oarsoaldeko udalerrietan eta Donostian erabil daitezke.

4. Zerbitzuaren ordutegia agerian egongo da bizikletak mailegatzeko guneeetan, eta sisteman alta emateko bulegoetan, eta horren berri emango da komenigarritzat jotzen den edozein hedabideren bitartez. Segurtasunagatik, eta udal bidegorrien sarea egokitzen bukatu arte, ez da bizikletarik mailegatuko gauez, hau da, iluntzetik aurrera.

5. Bizikleta erabiltzeko aukera izango da, mailegu-guneetan bizikletarik badago.

6. Erabiltzaileak sistema erabiltzen duenean erabiltzaile-txartela, NA eta/edo legezko tutoreen baimena (adingabea bada) eramango ditu. Txartel hori eska diezaiokete Pasaiaiko Udalak bizikleten mailegu sistemaren mantentzerako gaitu eta baimendutako langileek eta Udaltzaingoak.

### **III. Kapituluua. Eskubideak, betebeharrak eta debekuak**

#### 11. artikulua. Eskubideak.

Herritar guztiek dute eskubidea zerbitzuan alta emateko, baldin eta Ordenantza honen 6. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte (adina eta gaitasuna).

préstamo de bicicletas dentro del horario establecido por el órgano competente.

2. El tiempo de utilización de la bicicleta será el establecido por el órgano competente; mientras tanto, no habrá límite horario dentro de un mismo día, y la persona usuaria deberá depositar la bicicleta en cualquiera de los aparcamientos del sistema antes de finalizar el día. Los datos recogidos en el sistema de control, que registra la hora de retirada y devolución de la bicicleta, constituyen la prueba del tiempo de utilización del servicio a todos los efectos.

3. La bicicleta podrá ser utilizada dentro del municipio de Pasaia así como en Donostia y resto de municipios de Oarsoaldea.

4. El horario establecido para el servicio estará expuesto en los puntos de préstamo de bicicletas y en las oficinas de alta en el sistema, y podrá informarse del mismo por cualquier medio informativo que se considere conveniente. Por cuestiones de seguridad y hasta que no se finalice de adecuar la red de bidegorris municipales, no se prestarán bicicletas en horario nocturno, es decir, a partir del ocaso.

5. El uso de la bicicleta dependerá de la disponibilidad de las mismas en los puntos de préstamo.

6. Cuando se use el sistema el usuario deberá llevar consigo la tarjeta identificativa de usuario, así como el DNI y/o la autorización de los tutores legales en el caso de los menores de edad. Esta tarjeta podrá serle requerida por las personas habilitadas y autorizadas por el Ayuntamiento de Pasaia para el mantenimiento del sistema de préstamo de bicicletas, así como por la policía municipal.

### **Capítulo III. Derechos, obligaciones y prohibiciones**

#### Artículo 11. Derechos.

Todos los ciudadanos tienen derecho a darse de alta en el servicio, siempre que cumplan los requisitos de edad y capacidad establecidos en el artículo 6 de la presente Ordenanza.

Herritar guztiek erabil ditzakete bizikletak herri barruko desplazamenduetarako, ezarritako ibilbidearen barruan.

Ondoren adierazten diren eskubideak aitortzen zaizkie erabiltzaileei; hala ere, indarrean dagoen araudiaren arabera, beste eskubide batzuk ere izan ditzakete:

1. Sistemari erabilgarri dauden bizikletak erabiltzeko eskubidea, Ordenantza honetan eta indarrean den araudian adierazitako baldintzak betetzekotan.
2. Bizikletak erabiltzeko baldintza egokietan egon behar dute.
3. Zerbitzuari buruzko informazio eskatu eta jasotzeko eskubidea.
4. Iradokizunak, erreklamazioak eta kexak aurkezteko eskubidea, mezu elektronikoen bidez, ohiko postaren bidez edo aurrez aurre mailegu-guneetan edo HAZen.
5. Zerbitzuaren gorabeheren berri jasotzeko eskubidea, web orriaren bidez, email bidez, edo beste edozein bitartekoren bidez.
6. Istripua gertatuz gero, dagozkion kalte-ordainak jasotzeko eskubidea, baldin eta erabiltzaileak egiaztatzen badu istripua zerbitzuko bizikleten funtzionamendu txarragatik gertatu dela, hark erririk ez duela, eta ez duela arduragabekeriaz edo maltzurkeriaz jokatu.
7. Tarifen berri eta har daitezkeen neurrien berri jasotzeko eskubidea, eta neurriei dagokienez, egoki iritzitako alegazioak egiteko eskubidea.

#### 12. artikulua. Betebeharrak.

1. Araudi hau erabiltzaile guztiek bete beharrekoa da.
2. Erabiltzaileek uneoro errespetatu beharko dute Zirkulazio Araudi Orokorra.
3. Ordenantza hau urratzearen erantzule izango dira bizikleten mailegu-zerbitzuko

Todos los ciudadanos podrán hacer uso de las bicicletas para desplazamientos urbanos dentro del itinerario establecido.

Se reconocen expresamente los derechos de las personas usuarias que se detallan a continuación, con independencia de cualquier otro que les pueda corresponder, de acuerdo con la normativa vigente:

1. Hacer uso de las bicicletas disponibles del sistema, en las condiciones indicadas en las presentes condiciones y en la normativa vigente.
2. A que las bicicletas estén en condiciones para su uso.
3. Solicitar y recibir información del servicio.
4. Formular sugerencias, reclamaciones y quejas, mediante correo electrónico, correo ordinario o de forma presencial, en los puntos de préstamo o en el SAC.
5. Ser informado, a través de la página web, e-mail o por cualquier otro medio, de las incidencias del servicio.
6. En caso de accidente, recibir las indemnizaciones correspondientes, una vez haya sido acreditado por el usuario que el accidente se ha producido a causa de un mal funcionamiento de las bicicletas del servicio, cuando no opere culpa, negligencia o dolo, por parte del usuario.
7. A ser informado de las tarifas y de las medidas que puedan adoptarse y, en este último caso, a formular las alegaciones que considere pertinentes.

#### Artículo 12. Obligaciones.

1. La presente ordenanza es de obligado cumplimiento para todos los usuarios.
2. Los usuarios deberán respetar en todo momento el Reglamento General de Circulación.
3. Serán responsables de las infracciones a esta ordenanza los titulares/usuarios del



erabiltzaileak eta haien legezko arduradunak, adingabeak direnean.

4. Erabiltzaileek bizikletak mailegatzeko udal zerbitzua behar bezala erabili behar dute, eta ahalik eta kontu handienaz ibiliko dira. Bizikleta jaso duten egoera berean itzuliko dute, ondo funtzionatzen duela eta garbia, eta ainguratu ondoren, ondo lotuta dagoela egiaztatuko dute.

5. Bizikleta herri barruan bakarrik erabili daiteke, bizikletak erabiltzeko mugatutako ibilbidean. Ezin da bizikleta erabili beste bide guztietan, bizikletaren maila eta titularitatea edozein dela ere.

6. Erabiltzaileak bizikleta zaindu behar du, hura erabiltzen ari denean. Halaber, erabiltzailea izango da sistemaren elementuetan eragindako kalte eta galera guztien erantzulea, bizikleta hartzen duenetik itzultzen duen arte.

7. Erabiltzaileak ezarritako ordutegiaren barruan hartu eta itzuliko du bizikleta. Segurtasunagatik, eta udal bidegorrien sarea egokitzen bukatu arte, ez da bizikletarik mailegatuko gauez, hau da, iluntzetik aurrera. Betebehar hori betetzen ez bada, aldi baterako edo behin betiko kenduko zaio bizikleta erabiltzeko aukera, eta dagozkion erantzukizunak ere eska litezke.

8. Erabiltzaileak edozein mailegu-gunetan jakinarazi behar ditu zerbitzuaren ondorioz izandako gertakariak, edo zerbitzuari eragiten dioten gertakariak, eta bizikleten erabilera eragozten duten kalte edo akatsak. Bizikleta erabiltzailearen ardurapean egongo da, sistemaren aparkaleku batean uzten duen arte.

9. Galera, lapurreta edo ebasketa gertatuz gero, erabiltzaileak 8 orduko epea izango du salaketa jartzeko, eta edozein mailegu-gunetan horren berri emateko.

Halaber, aurkeztutako salaketaren kopia entregatu beharko du sisteman alta emateko bulegoetan gehienez ere 16 orduko epean,

servicio de préstamos de bicicletas, así como sus representantes legales cuando sean menores de edad.

4. Los usuarios están obligados a hacer un uso correcto del servicio municipal de préstamo de bicicletas, actuando con la mayor diligencia posible. Deberán devolver la bicicleta en el mismo estado en el que la cogieron, en buen funcionamiento y limpia, y una vez anclada comprobar que quede bien sujeta.

5. Las bicicleta sólo podrán ser utilizadas dentro del casco urbano en el itinerario delimitado para su uso. Queda prohibida su utilización en cualquier otra vía, independientemente de su rango y titularidad.

6. El usuario tiene la obligación, durante el tiempo de utilización, de custodiar la bicicleta. Así mismo, el usuario será responsable de los daños y perjuicios causados en los elementos del sistema durante el tiempo que transcurra entre la retirada y devolución de la bicicleta.

7. El usuario deberá retirar y restituir la bicicleta dentro del horario establecido. Por cuestiones de seguridad y hasta que no se finalice la red de bidegorris municipales, no se prestarán bicicletas en horario nocturno, es decir, a partir del ocaso. El incumplimiento de esta obligación dará lugar a la desactivación temporal o definitiva y a las consecuentes responsabilidades.

8. El usuario tiene la obligación de comunicar de inmediato en cualquier punto de préstamo cualquier incidencia que se produzca a consecuencia del servicio o que afecte al mismo, como los deterioros o fallos que impidan o dificulten el uso de las bicicletas. La bicicleta permanecerá bajo la responsabilidad del usuario hasta que la deposite en un aparcamiento del sistema.

9. En caso de pérdida, hurto o robo el usuario tiene la obligación de denunciar en un plazo máximo de 8 horas la desaparición de la bicicleta, así como de comunicarlo a cualquier punto de préstamo.

Así mismo, deberá entregar una copia de la denuncia presentada en las oficinas de alta del

salaketaren datatik kontatzen hasita, edo hurrengo lanegunean.

Salaketa jartzen ez badu, sisteman baja emango zaio eta dagokion zigorra ezarri ahalko zaio.

10. Justifikaziorik gabe bizikleta edozein lekutan uzten bada, zerbitzuan baja emango zaio erabiltzaileari, eta horrez gain, dagokion isuna jarriko zaio.

11. Bizikleta bat itzultzen ez bada, azken erabiltzaile gisa ageri den mailegu-zerbitzuaren titularrari eskatuko zaio bizikleta itzultzeko edo bizikletaren balioa (350 €) ordaintzeko. Horrez gain, sisteman baja emango zaio, eta dagokion isuna jarri ahalko zaio.

12. Erabiltzaileak I. eranskinean jasotako datuen aldaketak jakinarazi behar ditu. Betebehar hori betetzen ez bada, zerbitzuan baja eman ahal izango zaio.

13. Bizikleta gidatzen ari denean agintariak ezarritako arau-hauste eta zigorren erantzulea izango da erabiltzailea.

14. Pasaia Udala ez da erabiltzaileak bizikleten erabileraren ondorioz eragindako kalte eta galeren erantzulea izango. Erabiltzaileek bizikletaren egoera egiaztatu beharko dute, hura erabili aurretik.

### 13. artikulua. Debekuak.

1. Ezin da bizikleta erabili ezarritako ordutegi eta lekuetatik kanpo.

2. Erabiltzaileak ezin dio hirugarren bati bizikleta edo kode sekretua mailegatu, alokatu edo laga, edo bestelako erabileren egintzarik egin, ez irabazi asmoarekin eta ez irabazi asmorik gabe.

3. Ezin da bizikleta lehiaketetarako erabili, ezta bizikletentzako egokiak ez diren lur edo baldintzetan ere, hau da: eskaileretan, garajeetako arrapaletan, patinatzeko arrapaletan, espaloietan, mendi-hegaletan,

sistema en el plazo máximo de las 16 horas siguientes a la fecha de la denuncia, o día en el día hábil inmediatamente posterior.

En caso de no presentar dicha denuncia causará baja en el sistema y podrá imponérsele la sanción correspondiente.

10. El abandono injustificado de la bicicleta conllevará la baja en el servicio, además de la posible sanción pecuniaria correspondiente.

11. En caso de que una bicicleta no se devuelva se le requerirá al titular del servicio de préstamo que conste como último usuario de la misma que la devuelva o abone el valor estimado de la misma, 350,00 €. Además, causará baja en el sistema y podrá imponérsele la sanción correspondiente.

12. El usuario tiene la obligación de comunicar el cambio de los datos contenidos en los Anexos I. Este incumplimiento podrá dar lugar a la baja en el servicio.

13. El usuario será responsable de las infracciones y sanciones establecidas por las autoridades competentes con motivo de la conducción de la bicicleta.

14. El Ayuntamiento de Pasaia no será responsable de los daños o perjuicios que el usuario pueda sufrir o causar por el uso de las bicicletas. Los usuarios deberán comprobar el estado de la bicicleta antes de hacer uso de la misma.

### Artículo 13. Prohibiciones.

1. Se prohíbe la utilización de la bicicleta fuera del horario y lugares establecidos.

2. Se prohíbe al usuario prestar, alquilar, ceder o realizar cualquier otro acto de disposición de la bicicleta o del código secreto a favor de terceros, con o sin ánimo de lucro.

3. Se prohíbe el uso de la bicicleta en competiciones de cualquier clase, así como en terrenos o condiciones inapropiadas para las bicicletas, tales como escaleras, rampas de garaje o de patinaje, aceras, laderas, badenes,

irtenguneetan, lurrezko zelaietan eta antzekoetan, edo beste ibilgailu batzuentzat egokitutako eremuetan.

4. Ezin da bizikleta desmuntatu edo manipulatu, ezta bizikletak ez duen bestelako elementurik erantsi ere.

5. Ezin da bizikleta erabili zerbitzuaren helburuak ez diren bestelako helburuetarako eta, bereziki, ezin da helburu komertzialetarako erabili.

6. Ezin da bizikletan pertsona edo animaliarik garraiatu.

#### **IV. Kapitulum Zehapen-araubidea**

##### 14. artikulua. Oinarri orokorrak.

Zehapen-araubidea honako hauetan oinarrituko da: Ordenantza hau, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen XI. Titulua; Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko 2/1998 Legea; Zehapen ahalmena erabiltzeko prozedura onesten duen abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretua; eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea, eta hori garatzen duen araudia.

##### 15. artikulua. Arau-haustek.

1. Ordenantza honetan ezarritako betebeharrak eta debekuak ez betetzea administrazio arau-haustea izango da.

2. Arau-haustek arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke, eta legeria ezargarrian xedatutakoaren arabera zigortuko dira.

##### 16. artikulua. Arau-hauste oso larriak.

Arau-hauste oso larriak dira:

1. Bizikleta irabazi asmoarekin erabiltzea, alokatzea, saltzea, edo helburu komertzialekin

campos de tierra o similares, o en zonas acondicionadas para otros vehículos.

4. Se prohíbe el desmontaje o manipulación de la bicicleta, así como la integración en la misma de cualquier elemento ajeno.

5. Se prohíbe el uso de la bicicleta para fines distintos a los que constituyen el objeto del servicio, y en particular su uso con fines comerciales.

6. Se prohíbe al usuario el transporte en la bicicleta de personas o animales.

#### **Capítulo IV. Régimen sancionador**

##### Artículo 14. Principios Generales.

El régimen sancionador se rige por la presente ordenanza, por las disposiciones contenidas en el Título XI de la Ley 7/1.985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, por la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, por el Real Decreto 1.398/1.993, de 4 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento de Procedimiento para el Ejercicio de la Potestad Sancionadora, y por la Ley 30/1.992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, así como por su normativa de desarrollo.

##### Artículo 15. Infracciones.

1. El incumplimiento de las obligaciones y prohibiciones establecidas en la presente Ordenanza será constitutivo de infracción administrativa.

2. Las infracciones se calificarán como leves, graves y muy graves, y podrán ser sancionadas de conformidad con lo establecido en la legislación aplicable.

##### Artículo 16. Infracciones muy graves.

Serán infracciones muy graves las siguientes:

1. Utilizar la bicicleta con ánimo lucro, alquilarla, venderla o utilizarla para fines

erabiltzea, merkantziak, animaliak edo pertsonak garraiatzeko.

2. Galera, lapurreta edo ebasketa gertatzen denean salaketa ez jartzea ezarritako epe barruan.

3. Zerbitzuaren instalazioak eta elementuak kaltetzeko egintzak.

4. Bizikleta justifikatu gabe uztea edo galtzea.

5. Bi arau-hauste larri egitea hamabi hilabeteko epean.

#### 17. artikulua. Arau-hauste larriak.

Arau-hauste larriak dira:

1. Bizikleta ezarritako eremuetatik kanpo erabiltzea.

2. Bizikleta hirugarren batzuei lagatzea edo uztea.

3. Ibilgailu horietarako ezarritako trafiko-rauak ez errespetatzea.

4. Bizikleta funtzionamendu eta garbitasun egoera onean ez itzultzea, erabilera okerra egin delako.

5. Erabiltzen ari den bitartean gertatutako kalte, gorabehera edo istripuen berri ez ematea.

6. Bizikletari kalteak eragitea gaizki erabiltzeagatik. Bizikleta konpontzeko gastuak ordaindu beharko dira.

7. Bizikleta 12 orduetik gorako atzerapenarekin itzultzea.

8. Galera, lapurreta edo ebasketa gertatzen denean salaketa ez jartzea ezarritako epe barruan sisteman alta emateko bulegoetan.

9. Bi arau-hauste arin egitea hamabi hilabeteko epean.

#### 18. artikulua. Arau-hauste arinak.

comerciales, de transporte de mercancías, animales o personas.

2. No presentar denuncia dentro del plazo establecido en el supuesto de pérdida, hurto o robo de la bicicleta.

3. Los actos de deterioro de las instalaciones y elementos del servicio.

4. El abandono y pérdida injustificada de la bicicleta.

5. La reiteración en la comisión de dos faltas graves en un periodo de doce meses.

#### Artículo 17. Infracciones graves.

Serán infracciones graves las siguientes:

1. Utilizar la bicicleta fuera de las zonas establecidas para su uso.

2. Ceder o prestar la bicicleta a terceras personas.

3. No respetar las normas de tráfico establecidas para estos vehículos.

4. No devolver la bicicleta en buen estado de funcionamiento y limpieza por mal uso de la misma.

5. No comunicar cualquier desperfecto, percance o accidente ocurrido durante su uso.

6. Causar daños a la bicicleta por un uso incorrecto de la misma, sin perjuicio del abono de los gastos de reparación o reposición de la misma.

7. El retraso de más de 12 horas en la devolución de la bicicleta.

8. No presentar en las oficinas de alta del sistema copia de la denuncia por pérdida, hurto o robo de la bicicleta dentro del plazo establecido.

9. La reiteración en la comisión de dos faltas leves en un periodo de doce meses.

#### Artículo 18. Infracciones leves.

Arau-hauste arinak dira:

1. Bizikleta 12 orduetik gorako atzerapenarekin itzultzea, justifikatu gabeko arrazoiengatik.
2. Bizikleta horretarako egokitutako lekuetatik kanpo uztea.
3. Sistemaren funtzionamendu egokirako beharrezkoak diren datuen aldaketak ez jakinaraztea alta emateko bulegoetan.

#### 19. artikulua. Zehapenak.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 141. artikulua araberak, Ordenantza honen aurkako arau-hausteengatik ondorengo isunak ezarriko dira:

Arau-hauste oso larriak: 501 - 1.000 euro artean.

Arau-hauste larriak: 251 - 500 euro artean.

Arau-hauste arinak: 250 euro arte.

Zehapen horiek ezartzeaz gain, erabiltzaileari aldi baterako edo behin betiko baja eman dakioke zerbitzuan.

#### 20. artikulua. Zehapenen koexistentzia.

1. Ordenantza honetan araututako administrazio-zehapenak ezartzeaz gain, dagokiokeen bestelako zehapen zibil edo penalak ezar daitezke.

2. Administrazioaren zehapen-prozedurako egintzek garrantzi penala dutenean, administrazio-prozedura eten egingo da, prozedura penala ebatzi arte.

#### 21. artikulua. Behin-behineko edo behin betiko desaktibatzea.

1. Ezar daitezkeen isunez gain, erabiltzailea aldi baterako edo behin betiko desaktibatuko da bizikleten mailegu zerbitzutik, irizpide

Serán infracciones leves las siguientes:

1. El retraso inferior a 12 horas en la devolución de la bicicleta por causas no justificadas.
2. El estacionamiento de la bicicleta en lugares distintos de los habilitados al efecto.
3. La no comunicación a las oficinas de alta del cambio de algún dato personal del usuario necesario para el correcto funcionamiento del sistema.

#### Artículo 19. Sanciones.

Según el art. 141 de la Ley 7/1.985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, las multas por infracción de la presente Ordenanza podrán ser de las siguientes cuantías:

Infracciones muy graves: De 501 a 1.000 euros.

Infracciones graves: De 251 a 500 euros.

Infracciones leves: hasta 250 euros.

Estas sanciones podrán imponerse sin perjuicio de la posible baja temporal o definitiva del servicio.

#### Artículo 20. Coexistencia de sanciones.

1. Las sanciones administrativas reguladas en la presente Ordenanza podrán imponerse sin perjuicio de cualquier otro tipo de sanción civil o penal que pudiera corresponder.

2. Cuando los actos objeto del procedimiento administrativo sancionador tengan relevancia penal, se dejará en suspenso el procedimiento administrativo hasta la resolución del procedimiento penal.

#### Artículo 21. Desactivación temporal o definitiva.

1. Con independencia de la posible imposición de las sanciones pecuniarias que correspondan, se procederá a la desactivación



hauen arabera:

1.a) Bizikleta ordu bete baino gutxiagoko atzerapenarekin itzultzen badu, edo baimendu gabeko lekuetan aparkatzen badu, inhabilitazioa egun natural batekoa izango da.

1.b) Bizikleta 1-8 orduko atzerapenarekin itzultzen badu, inhabilitazioa 2 egun naturalekoa izango da.

1.c) Bizikleta ez bada entregatzen zerbitzua itxi aurretik, 10 egun naturalerako desaktibatuko da, atzerapena edozein dela ere.

1.d) Bizikleta 8-24 orduko atzerapenarekin itzultzen bada, inhabilitazioa hilabetekoa izango da.

1.e) Bizikleta 24 ordu baino gehiagoko atzerapenarekin itzultzen bada, inhabilitazioa urtebetekoa izango da.

1.g) Bizikleta edozein lekutan uzten bada, zerbitzuaren erabileran izandako gertakariak jakinarazten ez badira edo berandu jakinarazten badira, eta galera, lapurreta edo ebasketa kasuetan salaketarik jartzen ez bada, behin betiko desaktibatuko da erabiltzailearen txartela bizikleten mailegurako udal zerbitzuan. Halaber, aurreko hutsegiteak errepikatzen badira, behin betiko desaktibatuko da.

2. Inhabilitazioa egunez egun zenbatuko da, bizikleta atzerapenarekin itzuli eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

3. Aldi baterako desaktibatzen bada, berriz ere aktibatuko da automatikoki zerbitzua ez erabiltzeko ezarri zaion aldia bukatzean.

## 22. artikulua. Datuen babesa.

1. Zerbitzuko erabiltzaileen datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko dira, Pasaia Udalarekiko harremanetarako ondorio bakarrerako.

temporal o definitiva del usuario del servicio de préstamo de bicicletas con arreglo a los siguientes criterios:

1.a) Si el retraso en la entrega de la bicicleta es inferior a una hora, o si se aparca en zonas no permitidas, la inhabilitación será de 1 día natural.

1.b) Si el retraso en la entrega de la bicicleta es de entre 1 y 8 horas, la inhabilitación será de 2 días naturales.

1.c) Si la bicicleta no está entregada a la hora de cierre del servicio, la desactivación será por un periodo de 10 días naturales, con independencia de la duración del retraso.

1.d) Si el retraso en la entrega de la bicicleta es de entre 8 y 24 horas, la inhabilitación será de un mes.

1.e) Si el retraso en la entrega de la bicicleta es de más de 24 horas, la inhabilitación será de un año.

1.g) El abandono de la bicicleta, la falta de comunicación o comunicación tardía de cualquier incidente relacionado con la utilización del servicio, y la ausencia de denuncia en caso de pérdida, hurto o robo de la bicicleta, dará lugar a la desactivación definitiva del servicio municipal de préstamo de bicicletas. Así mismo, en caso de reincidencia la desactivación será definitiva.

2. Los periodos de desactivación serán por días completos, iniciándose al día siguiente del que se produzca el retraso en la entrega de la bicicleta.

3. En el caso de desactivación temporal se volverá al estado de activación de forma automática una vez transcurrido el periodo de restricción en el uso del servicio.

## Artículo 22. Protección de datos.

1. Los datos personales de los usuarios del servicio serán incluidos en un fichero automatizado a los únicos efectos de su relación con el Ayuntamiento de Pasaia.



**PASAIKO BIZIKLETEN MAILEGU ZERBITZUA  
(BIZIBADIA) ARAUTZEKO ORDENANTZA**  
ORDENANZA REGULADORA DEL SERVICIO DE  
PRÉSTAMO DE BICICLETAS DE PASAIA (BIZIBADIA)

IFK/CIF P2006900A  
Tel. 943 344034  
Donibane kalea, 19  
20110 Pasaia

**ONDAREA**  
Tel. 943 344034  
ondarea@pasaia.net

**AZKEN XEDAPENA.** Ordenantza hau indarrean sartuko da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1.985 Legearen 70.2. artikuluan xedatutakoarekin bat.

**DISPOSICIÓN FINAL.** La presente ordenanza entrará en vigor de conformidad con lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1.985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.